

# Banako Arreta Plana

Egoitzazko Foru Zerbitzua



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia.  
Gizarte Ekintza Saila. Departamento de Acción Social.  
Ugasko 3, 2ª Planta.  
48014 BILBAO.

Moldiztegia: .

Diseinua: Logoritmo. Diseño y Comunicación Visual.

ISBN:

Lege Gordailua:



Argitalpen hauen bitartez, gizarte-eragile batzuekin batera egin ditugun gogoeta batzuk jarri nahi dizkizuegu eskura. Orain aurkezten dizkizuegun dokumentuetan hezurmamitu dira gogoeta horiek.

Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak honako hau ere ezarri zuen bere helburu eta jardueren artean: gizarte-zerbitzuen jarduerari buruzko gogoeta eta jarduera horren zabalkundea egitea eta ekoizpen zientifiko eta teknikoaren sorrera bultzatzea.

Argitalpen hauen bidez, helburu hori gauzatu da.

Aurkezten dizkizuegun argitalpenak, gure iritziz, elkarren osagarri dira, eta gure adinekoei hobeto laguntzeko tresnatzat hartu behar ditugu.

Badakigu arlo honetan, sektore publikoaz gain, irabazteko asmoa duen sektore pribatuak eta hirugarren sektoreak ere badihardutela zerbitzuak ematen. Bizkaiko Foru Aldundiak, egoitzen foru sarea eratuz, erantzukizun publikoa indartu nahi izan du, gure adinekoen eskubideak bermatzearren. Horrexegatik, hau da, erantzukizun publikoa eta ekimen pribatua zein soziala uztartzen dituen sistema bat delako, behar-beharrezkoa da zenbait tresnaz hornitzea, sistemari batasuna emateko eta prestazioaren kalitatea hobetzeko.

Hori dela-eta, egoitzen foru sarean adinekoei ematen zaien laguntza homogenotzea da gure helburua, kalitatezko zerbitzu pertsonalizatua emanez, hots, erabiltzaile bakoitzaren egoera kontuan hartuz.

Argitalpen hauek zuentzat baliagarriak direlakoan, eta, betiere, egin daitezkeen kritikak entzuteko prest, jaso ezazue agur bero bat.

Juan María Aburto Rike  
Gizarte Ekintzako foru diputatua





Lantaldeko kideak	7
1. Sarrera	9
2. Erreferentziazko arauak	9
3. Asmoen adierazpena	12
4. BAPen definizioa	12
5. BAP egiteko urratsak	13
6. Balorazio geriatriko integrala	13
7. Balorazio eta jarduera arloak	13
8. Diziplinarteko taldea	14
9. Erreferentziazko pertsona	14
10. BAPen maiztasuna	14
11. Nori emango zaio BAP?	15
12. BAP eredua	15
13. Oinarrizko egoitzazko arreta	15
14. Egoitzan aldi baterako dauden pertsonentzako BAP	22
15. Ondorio gisa	24
16. Ezarpen plana	24
17. Erabilitako dokumentazioa	24





## Lantaldeko kideak

### *MERKATARITZAKO ERAKUNDE PRIBATUEN ORDEZKARIAK*

Gabirel Azaola  
Iratxe Landeta

### *IRABAZ ASMORIK GABEKO ERAKUNDE PRIBATUEN ORDEZKARIAK*

Miren Niño  
Arantza Zumalde

### *UDAL EGOITZEN ORDEZKARIA*

Itxaso León

### *BIDEAK-EKO EGOITZEN ORDEZKARIA*

Jose Pérez Agote

### *IFAS-EKO ORDEZKARIAK*

Begoña Jiménez  
Manu Villalonga

### *IKUSKAPEN ETA KONTROL ZERBITZUKO ORDEZKARIA*

Ana Isabel Pérez

### *HELDUEN ZERBITZUKO ORDEZKARIAK*

Raquel Torre  
Lourdes Zurbanobeaskoetxea (Kordinatzailea)







## 1. Sarrera

Inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzetan zenbait menpekotasun maila dituzten pertsonak bizi izaten dira behin betirako edo behin-behinean. Erabiltzaileen etxe bihurtzen da zentroa.

Baina egoitzen helburu bakarra ez da inoren laguntza behar dutenei eguneroko bizitzako jarduerak (EBJ) egiteko laguntza edo babesa eskaintzea. Toki biziak izan behar dute, pertsona bakoitzaren eskubideak errespetatuko dira eta gizabanakoaren gaitasunak eta trebeziak sustatu ere bai. Gainera, zentroko eguneroko bizitzaren oinarrian integrazioa, partaidetza eta ate irekien politika egongo dira.

Bizileku honetan pertsona da interesatzen zaiguna; horregatik, egoilearen bizitza-proiektua erraztu behar dute esku-hartzeko plan orokorrek eta laguntzeko programek eta protokoloek.

Bizitza-proiektu bat izanez gero, errazagoa izango da garapen eta hazkunde pertsonala ere eta proiektu hori izango da egoitzako programen eta jardueren ardatza.

Funtsezko elementu zenbait egoten da: pertsonalizazio maila, autonomia eta hautatzeko aukera zabala, erabiltzaileen bizimodu aldaketaren edo hausturaren ondorioak minimizatzea, hainbat harreman pertsonalen bategitea eta elkarbizitza anitza. Funtsezko elementu horien guztien oinarrian pertsonari tratu duina ematea eta intimitatea errespetatzea egongo dira.

Arreta integrala eskaintzeko, gizakia osotasun konplexu integratua dela pentsatu behar da, ez dela zatitutako zerbait eta mendeko pertsona helduen beharrak ere hala direla. Arazoari osoan heltzeko, ez da nahikoa espezialitate profesionalak ugaritzea; aitzitik, beharrezkoa da topagune interprofesionala

eta partekatua duten taldeak egotea. Filosofia eta printzipio etiko berdinak izatea nahitaezkoa da arretaren kalitatea hobetzeko.

Erabiltzaileak eta horien senitartekoak izango dira protagonista. Senitarteko horiek talde profesionalen batera berenganatu behar dituzte zaintza-lanak adostuta, partaide guztien borondateak eta printzipio etikoak erabat errespetatuta.

Horrela, bada, Banako arreta plana parte hartzeko sistema bat izango da, elkarrekin lotutako programek eratuko dute sistema hori eta egoitzako testuingurura egokitu beharko da, erabiltzaileen beharrei, eskeei eta bizitza kalitateari erantzuteko.

## 2. Erreferentziako arauak

Hainbat arau dago egoileei eskainitako arretan eragina dutenak, eta arau horiek aztertuz gero, arreta horrek nolakoa izan behar duen askotan aipatzen dela ikusiko dugu. Zehatz esateko, arreta horren izaera pertsonalizatua eta banakakoa nolakoa izan behar den aipatzen da askotan. Pertsonaren beharrak nahitaez ebaluatu behar direla ere esaten da, ondoren Banako arreta plana egin ahal izateko.

Egokia dirudi, beraz, erreferentziako arau hauek begien aurrean izatea pertsonen arreta plan-tzatzerakoan.

**41/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, adin-tsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa.**

a) Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legean ezarritakoaz bat etorri,



adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuen jarduera bideratuko duten printzipio orokorrak hauek dira:

- **Normaltasuna.** Egoiliarren bizimodua euren adineko gainerako biztanleentzat normaltzat jotako jokabideen ahalik eta antzekoena izango da.
  - **Autonomia.** Eguneroko bizitzan egoiliarrek ahalik eta autonomia pertsonalik handiena izan dezaten bultzatuko da, eta, ondorioz, duten menpekotasun fisiko nahiz psikikoaren mailagatik behar duten sorospena baino ez zaie emango.
  - **Partaidetza.** Egoiliarrek zentroko jardueretan ahalik eta partaidetzarik handiena izan dezaten sustatuko da.
  - **Integrazioa.** Egoiliarren ingurua mantentzea bultzatuko da.
  - **Osotasuna.** Osasunaren eta ongizatearen eredu oso bat lortu nahi da, alde guztiak hartu behar ditu: egoiliarren osasuna, alderdi soziala, psikologia, giroa, elkarbizitza, kultura eta antzeko gaiak.
  - **Profesionalizazioa.** Zentroko arduradunek eta gainontzeko langileek euren maila profesionalari egokitutako kualifikazio teknikoa izan beharko dute.
  - **Arreta pertsonalizatua.** Erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako arreta pertsonalizatua eskainiko da.
- b) Egoitzetako gizarte zerbitzuetako erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:
- Inolako bereizkeriarik gabe sartzeko aukera.
  - Banaka, errespetuz, zuzen eta ulermenez artatzekoa.
  - Bapestekotasuna.
  - Pertsona arteko harremanak izatekoa.
  - Informazioa jaso eta kontsultatuak izatekoa.
  - Intimitatea izatekoa.
  - Gizarte, osasun, botika, hezkuntza eta kultura mailetako atentzioa jasotzekoa, eta, oro har, behar pertsonaletarako sarbidea izatekoa.
  - Zuzendaritzari proposamenak egitekoa.
  - Zerbitzuak erabiltzeari uztekoa.
  - Erraz ulertuko duten hizkuntzan informatuak izatekoa.

c) Egoitza guztiek honakoak izango dituzte:

- Langileen aldiroko bilerak.
- **Banako zuzeneko arreta programak:** egoiliar bakoitzari langile bat izendatuko zaio eta hori izango da bere erreferentzia edo giltzarria.

**64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu duena.**

Eskubideen eta betebeharren gutun honetan jasotzen diren erabiltzaileen eskubideek bereziki azpimarratzen dute eskuartean dugun gaia:

- **Duintasuna:** halakotzat hartuko da pertsonen berezko balioa onartzea, bakoitzaren norbanakotasunari eta beharrei zor zaien errespetu osoz.
- **Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna.**
- **Autonomia:** eskubide hau erabiltzeak esan nahi du egoiliar bakoitzak bere bizitza-estiloa aukera dezakeela, informazio osoa, ulergarria eta bakoitzaren premietara egokitua izan dezakeela eskura eta jardueretan, zerbitzuetan edo tratamenduetan ez parte hartzea erabaki dezakeela.
- **Informazioa:** behar eta zerbitzu mota desberdinei buruzko informazioa izateko eskubidea.
- **Euren beharren ebaluazioa:** erabiltzaileen eta zaintzaileen deskripzioa kontuan hartuta.
- **Banako arreta plana (BAP):** ebaluazioan hautemandako beharretara egokitua. Plan hori idatziz emango da, ulertzeko moduan idatzita egongo da, eta kopia bat erabiltzaileari emango zaio eta beste bat familiari, erabiltzaileak hala nahi izanez gero; zerbitzuak eta prestazioak deskribatuko ditu eta parte hartuko duten pertsonak ere bai; erreferentziako profesional bat izendatu beharko da, eta interbentzioak koordinatzeko ardura izango du; errebisioaren eguna eta ordua adieraziko dira.
- **Zerbitzuaren kalitatea:** baldintza materialak, funtzionalak eta langileei dagokienak beteta.



- **Parte hartzea:** eragingo dioten erabakietan parte hartzeko eskubidea du egoiliarrak; adibidez, bere beharren zerrenda egiterakoan eta BAP egiterakoan.
- **Informaziorako eta partaidetzarako bideak eskura izateko eskubidea:** besteak beste, BAP idatziz izatekoa eta nahi izanez gero elkarrizketetan norbaitekin egotekoa, beharrak ebaluatzeko eta BAP egiteko.

**Abenduaren 16ko 11/2005 Foru Araua, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautzen duena.**

2.b) artikuluan erabiltzaileen arretarako berriazko printzipioak jasotzen dira berriro, aurrez aipaturikoak.

12. artikuluan **egoitza-zerbitzu forala erabiltzen duten pertsonen eskubideen artean aurrez aipaturikoak jasotzen dira**, besteak beste: autonomia pertsonala, beharrak ebaluatu, Banako arreta plana egin eta informazioa eskura izan. Eskubide horiek guztiak interpretatzeko, EAEko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskutitzean ezarritakoa hartu da kontuan eta aurrez aipaturiko iradokizunen eta kexen erregimena ere bai.

Azkenik, 17. artikulua **inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitza zerbitzuaren gutxieneko baldintzak eta edukiak jasotzen ditu**. Egoitza-zerbitzu forala erabiltzen dutenek gutxienez honako prestazioak jasotzeko eskubidea izango dute eta BAPen garapenean islatuko da.

- **Banakako arreta integrala.** Osasun eta ongizateko eredu orokor bat lortzera joko da; eredu horrek alderdi guztiak jaso behar ditu, euren artean behar bezala koordinatuta: osasun arlokoak, sozialak, psikologikoak, ingurumenekoak, bizikidetzakoak, kulturalak eta antzeko beste batzuk. Era berean, egoiliar bakoitzaren beharrietara egokitutako laguntza pertsonalizatua eskainiko da, laguntza integralerako plan pertsonalizatu bat eginenez, erabiltzailearen ezintasunaren arabera.
- **Osasun-laguntza.** Erabiltzaileek behar duten osasun-laguntza jasotzen dutela bermatuko da, norberaren bitartekoekin edo kanpokoekin.

**Higienea.** Higiene-zerbitzua eskainiko zaie erabiltzaile guztiei, euren beharrietan kontuan hartuta eta euren intimitatea errespetatuz.

- **Eguneroko jardueretara berregokitzea.** Mugitzeko, lanerako eta harremanetarako gaitasunak garatzea sustatzen duten jarduerak edo programak hartuko ditu barne, maila guztietan, hau da, taldean, familian, gizartean eta inguruan, ahalmen guztiak berreskuratzea lortzen ez bada ere, kasu bakoitzeko patologiaren barruan ahalmen horien murrizketa geldiarazteko helburuarekin.
- **Fisioterapia eta errehabilitazioa.** Mantentzeko eta suspertzeko ariketa fisikoak egingo dira.
- **Laguntza psikologikoa.** Hala behar duten erabiltzaileei emango zaie.
- **Gizarte eta kultur dinamizazioa.** Programa honek aisia aktiborako edukiak izango ditu, baita erabiltzaileen integrazioa eta mantentze aktiboa sustatuko duen parte hartzeko metodologia bat ere.
- **Gizarte-laguntza.** Hala behar duten erabiltzaileei eskainiko zaie, euren beharrietan arabera.
- **Erabiltzaileen senideei laguntza.** Familiei laguntza emango zaie, horien informazioa eta prestakuntza landuz, bereziki erabiltzailearekiko harreman hobea lortzeko.
- **Jantoki eta ikuztegi zerbitzua.** Jantoki zerbitzua elikadura zuzena gordez egingo da, erabiltzaileen beharrietan zehaztutara egokitu, kantitatea, kalitatea eta barietateari dagokienez. Beharrezkoa bada, eta osasun arloko langileen ikuskaritzapean, dieta bereziak prestatuko dira patologia bakoitzerako.

**209/2005 Foru Dekretua, abenduaren 20koa, honen bidez besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen foru zerbitzu publikoa jasotzeko araubidea finkatu da eta zerbitzu horretako egoaldi iraunkorrerako baldintzak ezarri dira.**

32. artikulua egokitzapen aldiari buruzkoa da eta egoitzan sartu ondorengo hiru hilabeteak daude aldi horretan. Adierazten da epe hori bereziki kontuan hartu beharko dela BAP barruan; plan hori zentroak egin izango du erabiltzaile berriarentzat.

**Inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru sarean integratutako zentroyen barne-erregimeneko araudia.**

7. artikulua onarpenari, egokitzeko aldiari, bajei eta absentziei buruzkoa da eta honakoa jasotzen du:

Luzaroko egonaldien kasuan, erabiltzaile bakoitza sartzen denean, arlo anitzeko azterketa eta ebaluazioa egingo zaizkio, eta emaitzen arabera Banako arreta plana (BAP) egingo zaio beren beregi. Plan hori Gizarte Ekintza Saileko Adinekoen Zerbitzuari bidaliko zaio, erabiltzailea zentroan sartu eta hilabeteko epean. Erabiltzailearen osasuna, burujabetasuna eta gizarteratzea lortzeko eta ahalik egoerarik onenean eusteko jarduketa guztiak bilduko dira plan horretan. Bertan finkatuko dira ebaluatu ahal diren zainketa-helburu zehatzak.

Erabiltzaile bakoitzak bere espedientea izango du, eta bertan ondokoak jasoko dira: beraren ezaugarriak eta laguntza beharrezko buruzko informazioa, egin zaion planaren inguruko informazioa, txosten teknikoak, diagnostikoak, agindutako tratamenduak, ezarritako planaren jarraipena eta ebaluazioa, eta planaren garapenean izandako gorabeherak.

Bestetik, azpimarratu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 209/2005 Foru Dekretuan aipaturikoa; hau da, hiru hilabeteko egokitzen aldia eta Banako arreta planean oharbide berezia izango dela.

### 3. Asmoen adierazpena

Arauek "behartu" egiten dute erabiltzaileen beharrak ebaluatzen eta ondoren Banako arreta plana (BAP) egitera. Eta duela urte batzuk adinekoen arreta partzelatuta zegoen arren, gaur egun denok dakigu zaintza-sistema onaren oinarrian aurretiko ebaluazio geriatriko integrala dagoela, autonomia sustatzen dela, zaintzek jarraipena dutela eta beste hamaika gauza.

Balorazio integrala eta arreta planak egitea da arreta geriatrikoaren oinarria eta arreta pertsonalizatu integrarean oinarritu beharko litzateke adineko pertsonentzako zerbitzuen filosofia.

Parte hartzeko sistema bezala Banako arreta plana erabiliz gero, elkarri lotutako programak egon behar dira sistema horretan eta programa horiek egoitzara egokitu beharko dira erabiltzaileen beharrei, eskariei eta bizi-kalitateari erantzuteko.

Horregatik, zentzu honetan planteatu behar dira helburuak:

- Gaitasun funtzionalak mantendu.
- Aldatutako gaitasunak hobetu, ahal den heinean.
- Gaixotasunak edo nahasteak agertzea edo areagotzea aurrez ikusi, mendekotasuna areagotzea ekidin.
- Galdutako edo aldatutako funtzioak egiteko euskarriak eman, lagundu edo ordezkatu.
- Gizarte harremanak bultzatu eta sustatu.

Hemen aurkezten dugun BAP eredu honek ez du eredu zehatza izan nahi, baizik eta gutxieneko batzuk ezarri nahi ditu. Horiek baloratzea eta lantzea beharrezkoa da eta aurrez aipaturiko helburuak lortzea da xedea.

Gutxieneko horiek ezarrita, egoitzen foru sareko zentroen erabiltzaileari eskaintzen zaizkion zerbitzuak ahalik eta gehien homogeneizatzen dira. Gutxieneko horiek nahi adina sakondu ahal izango ditu zentro bakoitzak, baina zentro guztientzako oinarria berdina izango da.

Adinekoentzako foru sareko egoitzentzako BAP eredu bat egiterakoan, aniztasuna ezin da alde batera utzi; izan ere foru sare horretako zentroak anitzak dira neurriei, titulartasunari, dituzten profesionalei... dagokienean.

Horiei guztiei erantzuna eman nahian eta gero sakontzen jarraitzeko lehen urrats gisa, oinarriko prozesu batzuk ezarri nahi izan dira gutxieneko edukiekin. Nola balorazioak hala helburuak sartzen dira bertan eta egoitzen foru sareko zentro guztiek bete behar dituzte.

Lehendabiziko fasean ez dirudi egokia ekintza bakoitzaren profesional arduradunak ezartzea. Egoi-kiagoa iruditu zaigu balorazio eta jardura arlo zehatzetan zentratzea hori garatzen duen profesionala dena delakoa izanda ere, jardura batzuk profesional batek baino gehiagok garatu baititzakete.

### 4. BAPen definizioa

Prozesu sistematikoa eta diziplinartekoa da. Praktika profesional onetik abiatuta erabiltzaile bakoitzaren bizitza-kalitatea mantentzea edota modu integrarean hobetzea du helburu.



## 5. BAP egiteko urratsak

Banako arreta plana egiteko, bete beharreko urrats batzuk identifikatzen dira:

- Balorazio geriatriko integrala (Arreta arlo garrantzitsuak).
- Beharrak eta potentzialitateak hauteman.
- Helburu zehatzak planteatu prebentzioan, laguntzan eta heziketan.
- Programak eta jarduerak zehaztu helburuak lortzeko.
- Jarduera horiek burutu.
- Aldiro ebaluatu definitutako helburuak betetzen diren, eta aldaketak eta helburu berriak planteatu.

## 6. Balorazio geriatriko integrala

Balorazio geriatriko integrala da BAP egiteko prozesu osoko giltzarria.

Funtsezkoa da balorazioaren diziplinarteko izaera kontuan izatea, eta beharrezkoa da profesional eta diziplina desberdinek parte hartzea, ikuspegi integrala izan ahal izateko.

Beraz, balorazio geriatriko integralean eragin garrantzitsua duten 3 arloetan balorazioa egitea funtsezkoa izango da.

Balorazio-eskala ugari dagoela kontuan izanda, logikoa dirudi zentro bakoitzak kasu bakoitzean egoki iritzitakoa erabiltzea.

Baina komenigarria dirudi, halaber, konfluentzia-puntu batzuk egotea ere. Beraz, egokia litzateke gehien erabiltzen diren eskalaren batzuk nahitaez bete beharrekoak izatea.

Zentzu honetan kontuan hartzen dira:

- Barthel eskala EBJ neurtzeko.
- Mini azterketa kognitiboa (MEC de Lobo) edo Pfeiffer testa, adimen baloraziorako.

### RAI-NH

Bestalde, eta kontuan izanda Bizkaiko Lurralde Historikoan RAI sistemaren aldeko apustu argia egin dela, egokia dirudi balorazio-tresna hau berariaz aipatzea.

RAI-NH laguntzarako tresna bat da eta horri esker langileek egoiliarren gaitasunei eta beharrei buruzko informazio zehatza lortzen dute. Izan ere, gaitasunak eta beharrak kontuan izan behar dira zaintzak banaka planifikatzerakoan.

Gida honek balorazio estandarizatua eta osoa eskaintzen du eta egoiliar bakoitzarekin errepikatu daiteke. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko duen gaitasuna baloratzen du eta trebezia funtzionalaren arazo esanguratsuak identifikatzen ditu. Horregatik, eta balorazio geriatriko integralean erabiltzeko tresna bakarra ez den arren, lehenbiziko balorazioa egiteko erabil daiteke. Balorazio horretan hautemango dira ondoren balorazio sakonagoa behar dezaketen arloak.

RAI-NHk honakoak eskaintzen dizkigu:

- Erabiltzailearen balorazioa eta tipifikazioa.
- Zaintza-planak egitea.
- Kalitate-adierazgarriak ezartzeko aukera.

Balorazio-itxak lantzean, RAI-NHko gutxieneko datu guztiak izan dira kontuan, gerora sistema horretara egokitzea hain zaila izan ez dadin.

## 7. Balorazio eta jarduera arloak

Funtsezkoa da pertsonaren zuzeneko arreta bereziki azpimarratzen duten arloak identifikatzea eta definitzea.

Osasunaren Mundu Erakundeak definitu du osasuna, eta definizio horren arabera, ez da gaixotasunik ez izate hutsa, ongizate fisikoa, mentala eta soziala ere sartzen da osasunean.

Definizio honen arabera, adineko pertsona osotasun biopsikozial integratu gisa hartu behar dugu; beraz, bere zatiren bat, funtzioaren bat edo joera multzoa baloratu nahi delako gerturatuz gero pertsona horrengana, beti gogoan izan beharko da goragoko maila hori ere.

Horregatik, balorazio prozesua adostuta egin beharko da beti eta helburuaren ardatza pertsona izango da; ez dira defizitak eta gaixotasunak bakarrik ebaluatuko, baita gaitasunak, funtzioak eta harreman positiboak ere.

Era berean, adineko pertsona baloratzea ezinbesteko urratsa da pertsona hori programetan, tratamenduetan eta zerbitzuetan sartu aurretik.

Argi identifikatzen diren balorazio eta jarduera arloak hiru dira, beraz:

- Gizarte arloa.
- Arlo psikologikoa.
- Osasun arloa.

Lan honetarako, honela definitu dira arlo horiek:

### ARLO PSIKOLOGIKOA

Egoiliarren ongizate afekto-erotiboa sustatzen da bere gaitasun kognitiboak, jarrerazkoak, emotiboak, harremanezkoak eta sozialak landuta.

### GIZARTE ARLOA

Erabiltzailearen gizarte eta familia mailako harremanak mantentzen eta sustatzen ditu nola egoitzan hala erkidegoan.

### OSASUN ARLOA

Osasunaren promozioa, prebentzioa eta mantentzea hartzen ditu, ahalik eta bizi-kalitaterik handiena eskainita.

Pertsona izaki biopsikosoziala dela esaten ari gara uneoro, beraz, ez dago zatiz osatuta. Hiru arloak elkarri lotuta daude eta alderdi asko partekatzen dute.

Bestetik, aurreko hiru arloak batu egiten dira programek eta jarduerak bat egiten duten espazio batean; horien helburua erabiltzailearen gaitasun funtzionalak bermatzea, mantentzea edo sustatzea da.

Gaitasun funtzional hori hobetzeak edo mantentzeak egiten ditu bat jarduera guztiak. Jarduera horiek arlo desberdinetatik egiten dira, baina puntu hori dute bat.



Egoiliar bakoitzaren BAPa egiteko, profesionalen balorazioak kontuan izango dira eta gizarte, osasun eta psikologia arloko balorazioa izango ditu balorazio funtzionalaz gain.

## 8. Diziplinarreko taldea

Erabiltzaileari arreta integrala, banakoa eta kalitatezkoa eskaintzeko, garrantzitsua da BAP egiterakoan zentroko diziiplina desberdinetako profesionalak batera lan egitea. Lan-metodologiaren oinarrian komunikazioa eta ekarritako informazioak eta iritziak egongo dira eta denen helburua bakarra izango da: arreta integrala eta banakoa eskaintzea. Horretarako, artatuko denaren beharren eta potentzialitateen arabera bereiziko dira jarduerak eta behar eta potentzialitate horien arabera emango zaie lehentasuna ere.

Lan sistematikaren oinarrian aldiroko bilerak egongo dira, arretarako banako planak planifikatzeko eta jarraipena egiteko.

Diziplinarreko talde honetan egongo dira zentroko zuzeneko arretako profesional guztiak, parte hartzen eta tartean sartzen diren heinean.

## 9. Erreferentziako pertsona

BAP planifikatzen eta burutzen aritutako profesionaletako inor gutxietsi gabe, erabiltzaile bakoitzak erreferentziako pertsona bat izango du eta horrek ezagutuko ditu BAP horren zehaztasunak.

## 10. BAPen maiztasuna

Komenigarria da profesionalak lehendabiziko 15 egunetan egitea erabiltzailearen balorazioa.

BAP egoitzan sartu eta lehendabiziko hilabetea betetzean osatuko da.

BAP urtean behin gainbegiratuko da gutxienez, edo planteatutako helburuak aldatu beharra da-



goen bakoitzean, erabiltzailearen egoeran aldaketa esanguratsuren bat egon bada.

## 11. Nori emango zaio BAP?

BAP erabiltzaileari emango zaio idatzita eta sendikoei ere bai, erabiltzaileak nahi izanez gero. Emandakoan, argi azalduko da bertako edukia.

Erabiltzailea ezgaituta baldin badago, tutoreari emango zaio.

Erabiltzailea eskumenduna ez balitz, baina ezgaituta ez balego, erreferentziazko senideari emango zaio eta, seniderik ez balu, bere historian gordeko da.

Pertsonaren historian gordeko da BAP erabiltzaileak planaren edukia jakin ez duen kasuetan ere.

Era berean, BAPen kopia bat bidaliko da Foru Aldundiko Adinekoen Zerbitzura.

## 12. BAP eredia

Hemen datorren BAP ereduarekin lortu nahi dena alde batera utzia, guztientzako berdinak diren oinarri batzuk ezarri nahi dira lana egiteko modu jakin baterako (balorazio geriatriko integrala, diziplinarteko taldea, etab.) eta garrantzitsua da aipatzen ari garen gutxieneko horiek zehatz ezartzea.

Horretarako, eredu batzuk daude ondoren. Eredu horiek balorazio arlo bakoitzean datuak biltzeko eta BAP egiteko balio dute. Horiek lirateke oinarritzko egoitza-arretan eska daitezkeen gutxiengoak.

## 13. Oinarritzko egoitzako arreta

### 1. BAP – BANAKO ARRETA PLANA

*Prozesu sistematikoa eta diziplinartekoa. Profesionalen praktika ona oinarri hartu eta erabiltzailearen bizi-kalitatea bere horretan mantentzea edota hobetzea du helburu.*

Prozesu horrek **dinamikoa** izan beharko du, egoera berri bakoitzera egokituko da eta fase hauek izango ditu:


- Balorazio geriatriko integrala (RAI eta bestelako tresnak).
- Beharrak hauteman.
- Helburuak planteatu.
- Programak eta jarduerak zehaztu.
- Horiek burutu.
- Etengabeko ebaluazioa.

Prozesua **diziplinartekoa** denez, koordinazioa eta talde-lana dago eta ez da nahikoa arlo profesional desberdinak egotea.

**Praktika profesional onaren** barruan sartzen dira gaitasun teknikoa eta gertutasuneko eta laguntzazko jarrera.

**Arreta integrala** eskainiko da, eta gizabakoa bere osotasunean hartuko da izaki bio-psiko-sozial gisa.

*“Osasuna ongizate fisikoa, mentala eta soziala da eta ez soilik minik eta gaixotasunik gabe egotea.” (OME)*



### 2. GIZARTE ARLOA

*Erabiltzailearen gizarteko eta familiako harremanak mantentzen eta sustatzen ditu nola egoitzan hala erkidegoan.*

Burutuko den prozesu orotan balorazioak egin beharko dira, erabiltzaile bakoitzaren gorabehera personalak ezagutzeko eta arriskuak edo potentzialitateak identifikatzeko. Planifikatutakoan, horiek lortzeko behar diren jarduerak egin eta etengabe gainbegiratu beharko dira.

Behar adina berriazko erregistro egongo da: egoki jasotako datuak, ondorengo balorazio-azterketarako garrantzitsu jotakoak edo burutu dela argi uztea beste helbururik ez dutenak.

### 3. OSASUN ARLOA

*Osasuna promozionatzeko, prebenitzeko eta mantentzeko garapena, ahalik eta bizitza-kalitaterik handiena eskainita.*

Nola alderdi fisikoa hala psikikoa sartzten da osasunean, argi baitago bien elkargunea badagoela.

Honakoak hartu behar lituzke:

- Arreta medikoa.
- Erizaintzako arreta.
- Langile laguntzaileen arreta.
- Arreta fisioterapeutikoa.

Burututako prozesu orok balorazioak bermatu beharko ditu; balorazio horien bidez erabiltzaile bakoitzaren gorabehera pertsonalak ezagutuko dira eta arriskuak edo potentzialitateak identifikatuko dira. Planifikatutakoan, horiek lortzeko behar diren jarduerak egingo dira eta etengabe gainbegiratu dira.

Behar adina berriazko erregistro egongo da: egoki jasotako datuak, ondorengo balorazio-azterketarako garrantzitsu jotakoak edo burutu dela argi uztea beste helbururik ez dutenak.

### 4. ARLO PSIKOLOGIKOA

*Egoiarraren ongizate afektibo-emozionala sustatuko da bere gaitasun kognitiboak, jarrazkoak, emotiboak, harremanetakoak eta gizarte-koak landuta.*

Burutuko den prozesu orotan balorazioak egin beharko dira, erabiltzaile bakoitzaren gorabehera pertsonalak ezagutzeko eta arriskuak edo potentzialitateak identifikatzeko. Planifikatutakoan, horiek lortzeko behar diren jarduerak egin eta etengabe gainbegiratu beharko dira.

Behar adina berriazko erregistro egongo da: egoki jasotako datuak, ondorengo balorazio-azterketarako garrantzitsu jotakoak edo burutu dela argi uztea beste helbururik ez dutenak.

GIZARTE ARLOA	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Filiazio datuak eta datu orokorrak</li> </ul>	<i>Erabiltzailearen datuak jaso, egoki identifikatzeko behar diren guztiak:</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izen-abizenak</li> <li>- Goitizena</li> <li>- Jaiolekua eta data</li> <li>- Egoera zibila</li> <li>- Egoitzan sartu aurretiko helbidea</li> <li>- NAN eta Gizarte Segurantzako zenbakia</li> <li>- Erreferentziazko osasun zentroa</li> <li>- Aseguruak, heriotza polizak...</li> <li>- Egonaldi mota edo iraupena</li> <li>- Darabiltzan hizkuntzak</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiakoen datuak</li> </ul>	<i>Erreferentziazko senitartekoa identifikatu (Helbidea, telefonoa, ahaidetasuna edo harremana, NAN).</i> <i>Beste senitarteko ezagunen datuak (ahaidetasuna, telefonoa ...).</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• LEGEZKO egoera</li> </ul>	<i>Legezko egoerari buruzko alderdiak, baita erabiltzailearen balizko babesik eza adierazten duten alderdiak ere, eskubideen defentsa.</i> <i>Ezintasuna (tutorea, kuradoretza ...).</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beste datu biografiko batzuk</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laneko aurrekariak</li> <li>- Trebetasun maila</li> <li>- Bestelakoak (non bizi izan den, egindako bidaiak,...)</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohiturak eta aisia</li> </ul>	<i>Hautemandako ohiturak eta aisia; zentroak sustatuko edota erraztuko ditu.</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sinesmena eta balioak</li> </ul>	<i>Alderdi erlijiosoei edota bakoitzaren sinesmenei buruzko alderdiak erraztuko dituzten jarduerak.</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazio kudeaketak</li> </ul>	<i>Erabiltzaileak edota familiakoek kanpoko laguntzarik gabe egin ezin dituzten administrazio kudeaketei buruzko beharrak.</i>





GIZARTE ARLOA	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarteko eta familiako erlazioa</li> </ul>	<p><i>Erabiltzailearen harreman pertsonaletan hautemandako egoerak, zuzendu beharrekoak, hobetu beharrekoak, etab.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoitzara etorri aurreko elkarbizitza (bakarrik, familiakoekin ...)</li> <li>- Egoitzan sartzearen zergatia</li> <li>- Familiako harremanen kalitatea</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Irteeren eta bisiten erregimena</li> </ul>	<p><i>Erabiltzaileak inguruarekin (nola egoitzakoekin hala kanpokoekin) dituen harremanei buruzko informazioa.</i></p>

OSASUN ARLOA	
<b>Diagnostikoa</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurrekari pertsonalak eta familiarrak</li> </ul>	<p><i>Aurrekari pertsonal eta familiar garrantzitsuei buruzko informazioa jaso. Ohitura toxikoak.</i></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Egungo egoeraren diagnostikoa</li> </ul>	<p><i>Erabiltzaile bakoitzaren egoera diagnostikoari eta patologia aktiboari buruzko informazioa.</i></p>
<b>Tratamendu farmakologikoa</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Agindutako tratamenduen erregistroa</li> </ul>	<p><i>Erabiltzaile bakoitzari agindutako preskripzio farmakologikoei buruzko informazio guztia:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Botika, dosiak, hasiera eta amaiera data, etab.</li> </ul> <p><i>Jarduera terapeutikoen araberako sailkapena:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- PSIKOFARMAKOAK (antipsikotikoak, ansiolitikoak, antidepressiboak, hipnotikoak ...)</li> <li>- GAIXOTASUN DEGENERATIBOAK (Parkinsona, Dementia ...)</li> <li>- BIHOTZ-HODIETAKO SISTEMA (hipertentsioaren aurkakoak, diuretikoak, antiagreganteak-antikoagulanteak, kardiotonikoak, flebotonikoak...)</li> <li>- SISTEMA ENDOKRINOA (diabetesa, tiroidesa ...)</li> <li>- ANALGESIKOAK ETA HANTURA KONTRAKOAK</li> <li>- ARNAS SISTEMA (bronkodilatadoreak, kortisona, aerosol terapia, oxigenoterapia ...)</li> <li>- DIGESTIO-SISTEMA (babestekoak, prozinetikoak, azidoaren aurkakoak, laxanteak ...)</li> <li>- BESTELAKOAK. (Kolirioak, glaukoma tratamenduak ...)</li> </ul> <p><i>TRATAMENDU BEREZIAK (Kimioterapia, dialisia, IV. medikazioa, erradioterapia).</i></p>
<b>Osasun jarduerak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Erabiltzailearen azterketa eta balorazioa</li> </ul>	<p><i>Erabiltzailearen azterketa eta balorazio geriatrikoen emaitzak, pertsona horren osasun alderdiei buruzko ikuspegi orokorra izateko.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ENTZUMEN PATROIA:              ENTZUMENA              KOMUNIKATZEKO TRESNAK EDO TEKNIKAK              KOMUNIKATZEKO METODOAK              ULERTARAZTEKO GAITASUNA              HITZ EGITEKO GARBITASUNA              BESTEEI ULERTZEKO GAITASUNA</li> </ul>













